

Mondragon Unibertsitateko 1.Mendi Astea Eskoriatzan

2012/03/05

Martxoaren 12ko astean Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak "MUko 1.Mendi Astea" antolatu du Eskoriatzako HUHEZI fakultatean. Aste osoan zehar mendiaren inguruko jarduerak izango dira. Besteak beste mendi ibilaldiak, mendi lasterketa eta ultra trail-en inguruko solasaldia, "Aizkora hotsak goi mendietan" bideo emanaldia eta eski irteera. Ekintza guztiak dohainekoak izango dira (eski irteera izan ezik) baina antolaketa egoki baterako, parte hartu nahi duen edonork asistentzia konfirmatu beharko du telefono (943712033) edo posta elektronikoko bidez (kirolak.huhezi@mondragon.edu). Eski irteera izan ezik, gainontzeko zita guztiak dohain izango dira.

Aipatzekoa da Salomon Santiveri taldeko Oihana Kortazar eta Iker Karrera puntako mendi lasterkariekin solasaldia izango dela astelehenean 19:00etan, eta asteazkenean, ordu berdinean, Bideografik produktorearen eskutik Alex Txikonen "Aizkora hotsak goi mendietan" dokumentalaren emanaldia. Bi zita hauetan interesa duen edonork har lezake parte.

Astearte eta ostegunak aldiz, bailarako bi mendi ezanguratsutara irteerak egingo dira, Kurtzeberri eta Atxorrotzera hurrenez hurren. Bi irteera hauek eta asteburuko eski irteera batez ere MUko komunitateari zuzenduta daude.

Antolatzaileek MUko komunitatea eta Deba Goieneko biztanleak parte hartzera animatu nahi dituzte.



www.mondragon.edu/eu/kirol-zerbitzua

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO 1. MENDI ASTEA
Martxoak 12-18, Eskoriatza

Martxoak 12, astelehena, 19:00etan.
Huheziko N.O.9 aretoan:
MENDIA: LASTERKETAK ETA ULTRA TRAIL-AK
Oihana Kortazar eta Iker Karreraekin solasaldia
Salomon Santiveri taldeko bideak **Dohain**

Martxoak 13, asteartea, 9:30etan.
Huheziko Kirol Zerbitzuan N.O.11:
MENDI IRTEERA KURTZEBERRIRA **Dohain**

Martxoak 14, asteazkena, 19:00etan.
Huheziko N.O.9 aretoan:
Alex Txikonen **AIZKORA HOTSAK GOI MENDIETAN**.
Dokumentalaren aurkezpena eta
expedizio eta grabaketaren inguruko solasaldia.
Bideografik. **Dohain**

Martxoak 15, osteguna, 15:00etan.
Huheziko Kirol Zerbitzuan N.O.11:
MENDI IRTEERA ATXORROTZERA **Dohain**

Martxoak 16-18, ostirala, 19:00etan:
ESKI IRTEERA ST LARY ESKI ESTAZIORA **Dohain**

***OHARRA: Mendi eta eski irteerak MUko komunitateari zuzenduta.**
KOMUNITATE ARIBERTSITATEA
kirolak.huhezi@mondragon.edu
943712033

bideografik **SALOMON**

I.mendi asteko egitaraua